

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Iruña Okako Udala

Ayuntamiento de Iruña de Oca

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Langileria	9
III.3 Kontratazioa.....	9
III.4 Transferentziak eta diru-laguntzak	10
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	11
IV. FINANTZA ANALISIA	12
V. URTEKO KONTUAK	14
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	17
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	17
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	18
A.4 Transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	19
A.5 Langileria-gastuak.....	20
A.6 Ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	21
A.7 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	22
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	24
A.9 Aktibo ez-arrunta eta ondare garbia	25
A.10 Kontratazioaren analisisa.....	27
ALEGAZIOAK	29



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	37
I. INTRODUCCIÓN.....	39
II. OPINIÓN.....	40
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	40
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	40
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	41
III.1 Presupuesto y contabilidad	41
III.2 Personal.....	41
III.3 Contratación	42
III.4 Transferencias y subvenciones.....	42
III.5 Morosidad y otros aspectos	43
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	44
V. CUENTAS ANUALES	46
ANEXOS	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	49
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	49
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	50
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	51
A.5 Gastos de personal	52
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	53
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	54
A.8 Deudores presupuestarios.....	57
A.9 Activo no corriente y patrimonio neto.....	58
A.10 Análisis de contratación	60
ALEGACIONES	61

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a
Vitoria-Gasteiz, 20 de diciembre de 2018



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

11/1995 FA	11/1995 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa.
2/2016 Legea	2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
27/2013 Legea	27/2013 Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzkoa.
38/2013 FA	38/2013 Foru Araua, Arabako toki erakundeen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzkoa.
56/2015 FD	56/2015 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onartzen duena.
57/2003 Legea	57/2003 Legea, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAOL	3/2017 Legea, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
FOFEL	Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Iruña Okako Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2000ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorra honako hauek besarkatzen ditu: Balantzea, Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua, Oroitidazkia eta Aurrekontuaren likidazio-egoera.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Iruña Okako udalerriak 3.264 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean; Udalaz gain, honako kontzeju hauek esku hartzen dute udalerrian: Mandaita, Olabbarri, Nanclares Oka, Tresponde eta Billoda-k, zeinek ur-hornidura eta saneamendu, herriko argi, hilerri eta gizarte-etxearen zerbitzuak ematen dituzten eta ondarea kudeatzen. Gainera, 5 kontzeju horiek eta Udalak Lorategi eta berdeguneetako garbiketa eta zaintzarako Partzuergoa eta Iruña Okako Uren Partzuergoa osatzen dute. Hauek ekitaldi hasieran Udalari atxiki gabe zeudenez gero, haien kontuak ez dira ekitaldi itxieran Udalaren Kontu Orokorrekin batera aurkeztu eta ez dira fiskalizazio-lan honen xede izan (ikus A.7). Añanako Kuadrillak, bestalde, zaborrak biltzeko zerbitzua mankomunaturik ematen du eta eskualdeko enplegu programa eta udal artxiboa kudeatzen ditu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

- Argindarraren hornidura zuzenean esleitu zen, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta. Zerbitzuak 2017an 170.197 euroren kostua izan zuen (ikus A.10).

Epaitegi honen ustetan, Iruña Okako Udalak, 1. paragrafoan aipatutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen 2017ko abenduaren 31n Iruña Okako Udalaren Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Ondare Garbian eragina duten doikuntzak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA		ONDAREKOA	
	DIRUZAINZA			ONDARE
	GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	GARBIA
A.4 Diru-laguntzagatiko sarrerak: zorpetutako zenbatekora doitzea	38	38	-	38
A.9 2016an Iruña de Oca Sociedad Urbanística, SA desegin eta kitatzea.....	89	(16)	45	29
A.9 Zorpetutako baina erregistratu gabeko hirigintzako sarrerak	-	649	-	649
A.9 AFari lursaila lagatzea Los Llanosen, erregistrorik gabe.....	-	(415)	-	(415)
UDALA GUZTIRA	127	256	45	301

- Erantsitako kontuek ez dute ebatzi gabeko errekurso judizial batek eragindako kontingentziaren berri ematen, 2011ko desjabetze-hitzarmen batetik eratorritakoa, zeinaren indarrez Udalak desjabetutako norbanakoen lursailak birkalifikatu behar zituen; alabaina, birkalifikatzea gauzatu gabe 4 urte igaroz gero, kontratuak aurreikusten zuen Udalak lursail eraikigarriak edo konpentsazio bat emango ziela, errekurso-egileek 820.224 euroan zenbatetsi zutena.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Iruña Okako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko aurrekontuaren langileei buruzko eranskinak lanpostuak zerrendatzen zituen (LZ), baina ez zituen ordainsari kontzeptu bakoitzerako kreditu-zuzkidurak xehatzen. Halaber, ez zen adierazten lanpostu bakoitzari esleitutako berariazko osagarria.
- Udalaren Kontuek ez dute barne hartzen 134.946 euroren hartutako konpromisoa, 2017ko martxoan HAPO idazteko kontratua esleitzetik eratorritakoa.
- 2017an atzerapenez igorri zituzten AFaren derrigorrezko diru-bilketa agentziara kobratzeko zeuden 2016ko OHZko ordainagiriak, 84.854 euro kobratzeko ekitaldi itxieran, zeinetatik 40.743 euro kobratzeke zeuden 2017ko abenduaren 31n.
- Lurraren Ondare Publikoaren kontuak 3 lursail jasotzen ditu, 2,4 milioi euroren kostua dutenak; Udalak birsailkatzeetatik eskuratu zituen hauek, baina zerbitzu publikoetara meneratuak zeuden eta honenbestez, kontu honetan oker sailkatuak daude.
- Urteko oroitidazkiak eman egin behar luke udal kiroldegiko ordainketek eragindako sarreren berri, 2017an 280.800 euro egin dituen; ez dira, baina, Udalaren Kontuetan zehazten zerbitzua kudeatzen duen enpresaren ordainketari aplikatzen zaizkiolako (ikus A3).

III.2 LANGILERIA

- Udalak 2017ko ordainsariak % 1 gehitu zituen, EAOLk baimentzen duen gehiena azken horiek onartu ostean; ordea, ez zuen Udalbatzaren erabakirik jaso, zeinari publikotasuna eman behar zitzaiokeen.
- 2017an hilero langileei produktibitate-plusa izeneko osagarri bat ordaindu zitzaien, haien ordainsarien % 4,6 egin zuena eta Udalbatzak onartu gabe zuena.
- Oinarrizko ordainsari kontzeptuengatik aparteko 2 pagetan kitatutako zenbatekoak ez datoz bat EAOLk finkatutakoekin.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 4 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.10):

- Guztira 434.119 euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontraturen (2, 3 eta 4 zk. espedienteak) esleipen-ebazpena ez zen ALHAOn argitara eman. Kontratu hauetan beretan, lehiatzaileei egindako esleipenaren jakinarazpenak ez zituen hautaketarako



baliatutako argudioak zehazten; komenigarria da esleipen-proposamena txertatzea (A1 akatsa).

- Kiroldedia kudeatzeko kontratuaren plegua milioi 1 euroan esleitu zen; kontratu horren pleguak ez zuen bereizirik aurkeztea aurreikusten eskaintza teknikoa eta proposamen ekonomikoa. Pleguan agindutako bermea urteko gastua oinarri hartuta kalkulatu zen, kontrataturiko kostua osotasunean hartu beharrean.
- Haur eta gazteen aisialdi zerbitzuaren kontratuaren balio zenbatetsia (126.230 euroan esleitu zen) udako udalekuak aintzat hartu gabe kalkulatu zen, balio hori 87.756 euroan areagotuko zukeena (B akatsa).

Alderdi orokorrak eta erosketa txikiak

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana sailkatzeko eskatutako jarraibideak ebatzi. Eskaintako hobekuntzei dagokienez, komeni da zehaztea zein onartu diren kontratuan eta hileroko ziurtagiri edo ordainagirietan berariazko atal bat jasotzea horien jarraipena egiteko.
- Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean ikusi da hiru zerbitzu eta hornidura bat zuzenean esleitu direla, guztira 150.751 euroan; horiek prozedura negoziatu modura izapidetu behar ziratekeen. 2017an ongintzako elkarte bati 48.000 euro ordaindu zitzaizkion udal-instalazio bat kudeatzeko hitzarmen baten ondorioz; horiek, baina, diru-laguntza izaera dute eta egokiagoa litzateke diru-laguntza izendun modura erregistratzea. 2016an aleko prezioetan esleitutako zerbitzu baten balio zenbatetsia kalkulatzeko baliatu zen urteko jarduera txikiagoa izan zen 2017an izan zuen egikaritza baino, zeinak 22.920 euro egin baitzituen (ikus A.10).

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalerrian diharduten 5 kontzejuek honako zerbitzu hauek ematen dituzte. argiteria publikoa, ur hornidura eta saneamendua, kale garbiketa e.a. Tokiko araudiak zerbitzu hauek Udalaren eskumen modura definitzen ditu eta kontzejuek eskuordetze bidez gara ditzakete; eskuordetze hori, baina, formalizatu egin beharko litzateke eta udalerrian diharduten 6 administrazioen egiteko eta jarduera eremuak bereizi, betiere eskuordetze zerbitzua modu egokian emateari mugatuz. Zehatzago esanda, zerbitzu bakoitzari dagozkion ondasunak identifikatu behar lirateke eta hobekuntza lanak kudeatuko dituen erakundea zehaztu; baita horien finantzaketa ere, udalaren ekarpenak ez ezik, AFAk egiten dituenak ere aintzat hartuta.
- Lorategi eta berdeguneetako garbiketa eta zaintzarako Partzuergoari 165.488 euroren ekarpenak egin zitzaizkion, 2017an egindako ekarpen guztien % 81,4. Horiek kalkulatzeko irizpide objektiboak aplikatu behar dira eta partzuergoko ente bakoitzak egindako lanak balioztatu; Udalak ez du egindako kalkuluen xehapenik eskuratu.



III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez ditu ordainketa epeei buruzko nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egiten.
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispideari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, udalaren web-orrian aurrekontuan barne hartu dira, baina horien egikaritzari buruzko informazioa gaineratu behar da. Berebat, zinegotzien ondasunen eta jardueren gaineko aitorpenak ere barne hartu behar ziratekeen.
- Udalak 2014an hirigintzako hitzarmen bat izenpetu zuen tokiko enpresa batekin, zeinetan aurreikusten zen HAPO idazterakoan enpresa horren lursail baten eraikigarritasuna handiagotuko zela eta Udalak ordainetan lursail bat jasoko zuela. Nahiz espedientean jasoak dauden egin beharreko trukearen orekari buruzko balioespenak, indarreko hirigintzako araudiak agindutako perituen balorazioa falta da.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua:

FINANTZA ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)	1.964	1.732	1.736	619	530	532
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.399	1.434	1.506	441	439	461
Ondare sarrerak (5. kap.).....	40	20	20	13	6	6
A. Diru-sarrera arruntak	3.403	3.186	3.262	1.073	975	999
Langileria gastuak (1. kap.).....	649	662	652	205	202	200
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.470	1.593	1.491	463	487	457
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	442	492	451	139	150	138
B. Funtzionamendu gastuak	2.561	2.747	2.594	807	839	795
Aurrezki gordina (A-B)	842	439	668	266	136	204
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta	842	439	668	266	136	204
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	842	439	668	266	136	204
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	41	41	-	13	13	-
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.).....	1.476	720	54	465	220	17
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	2.062	1.353	200	650	414	61
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	46	283	45	15	87	14
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(591)	(875)	(191)	(187)	(268)	(58)
Eragiketa ez finantzar. emaitza (1etik 7rako kap.).....	251	(436)	477	79	(132)	146
Diruzaintza geldikin likidoa	1.320	903	1.364	416	276	418
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	1.235	891	1.321	389	272	405
Zorpetzea 12.31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 4,1 egin dute behera 2017 eta 2015 artean, erakundearen diru-sarrerak behera egin izanaren ondorioz; ordea, berdindu egiten da transferentzia eta diru-laguntzetan izandako hobekuntzarekin:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 11,6 egin dute behera, hainbat kontzeptutan diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz, nahiz azpimarratzekoak diren gainbalioen gaineko zerga eta EIOZ, hirurtekoaren lehenengo urtearen aldean jarduera txikiagoa izan delako. Zergen tarifak ez dira aldatu hirurtekoan.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 7,6 egin dute gora zerga itunduen partaidetzako diru-sarrerak % 10,1 hobetzean.



Funtzionamendu gastuak: % 1,3 egin dute gora 2015 eta 2017 bitartean, xehapen honekin:

- **Langile gastuak:** egonkor eusten diote aztertutako aldiari, nahiz % 1eko soldata igoera izan den 2016 eta 2017an, hirurteko lehenengo bi urteetan 2012ko aparteko soldata itzuli izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** % 1,4 egin dute gora, gutxitu egin direlarik konponketa eta zaintza gastuak eta gehitu hainbat gastu eta enpresek egindako lanak.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** egonkor eutsi diote hirurtekoan, % 2ko igoerarekin.

Aurrezki gordina eta garbia: Aurrezki gordina aldakorra izan da, lehenengo urteko % 24,7ko sarrera arrunten eta 2017ko % 20,5 artekoa, bigarren urtean behera egin duela, sarrera horien % 13,8 jo arte, aurrez aipatutako bariazioen ondorioz.

Kapital eragiketen emaitza: Hirurtekoan inbertsioek 3,6 milioi euro egin dituzte eta % 62,2 diru-laguntza bidez finantzatu da. Kapitaleko diru-laguntza bidez kontzejuek egindako inbertsio osagarriak finantzatzen dira.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: Aldagai honek behera egin du 2016an sortutako aurrezki txikiagoa izan delako eta kapitaleko eragiketek eragina dutelako; ordea, 2017an oneratu zen, aurrezki mailak hobera egin zuelako eta inbertsioak murriztu zirelako, 1,3 milioi euroren zenbatekora iritsiz, sarrera arrunten % 40ren pare.

Ondorioa: Eragiketa arruntek sortutako aurrezkiak fluktuatu egin du aztertutako aldiari, baina 2017an sarrera arrunten gainean % 20,5 egin zuen. Aurrezki honek eta diru-laguntzek hirurteko inbertsioak finantzatu dituzte zorpetu beharrik izan gabe eta Geldikinari hasierako mailetan eutsita.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 38/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, Udalaren kontu-hartzaileak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. 2017ko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioetan 399.216 euroren superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, ekitaldiko gastu zenbakarriak behera egin baitu.

Zorpetzeari dagokionez, Udalak ez du kanpoko finantzaketarik behar izan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2017-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			SARRER.	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.		GABE	KOBR.	
1.- Zerga zuzenak	A.3	1.384	-	1.384	1.416	1.151	265	102
2.- Zeharkako zergak	A.3	65	-	65	82	80	2	126
3.- Tasak eta bestelako sarr.....	A.3	270	-	270	238	186	52	88
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4	1.423	6	1.429	1.506	1.423	83	105
5.- Ondare sarrerak.....	-	29	-	29	20	14	6	69
6.- Inbertsio errealen besterentzea	-	275	-	275	-	-	-	-
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	43	25	68	54	5	49	79
8.- Finantza aktiboak	-	10	397	407	1	-	1	10(*)
SARRERAK GUZTIRA		3.499	428	3.927	3.317	2.859	458	94(*)

(*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BET.		ORDAINK.	GABE	
1.- Langileria-gastuak.....	A.5	684	2	686	652	636	16	95
2.- Ondasun arrunt eta zerbitz. erosc.....	A.6	1.600	71	1.671	1.491	1.366	125	89
4.- Transferentzia arruntak.....	A.7	468	15	483	451	367	84	94
6.-Inbertsio errealak	A.6	680	340	1.020	200	160	40	20
7.- Kapitaleko transferentziak	A.7	52	-	52	45	-	45	87
8.- Finantza aktiboak	-	15	-	15	1	1	-	6
GASTUAK GUZTIRA		3.499	428	3.927	2.840	2.530	310	72
SARRERAK - GASTUAK					477			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R/ AZKEN		
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.8	1.012	(21)	(450)	541
Hartzekodunak	-	632	-	(516)	116
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(21)		

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	3.317
Obligazio aitortuak.....	(2.840)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	477
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(21)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	456
Finantzaketa desbideratzeak	43
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	90
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	589



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina, 17.12.31-n	903
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	456
Zalantzazko kobrantzen zuzkidurako bariazioak	5
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31-N	1.364
Diruzaintza	1.433
Aurrekontuko zordunak (A.8)	999
Aurrekontuz kanpoko zordunak	2
Aurrekontuko hartzekodunak	(426)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(61)
Aplikatzeko daudenak	8
Kaudimengabeziatarako hornidura (A.8)	(591)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2017.12.31-N	1.364
Finantzaketa desbideratzeak	(43)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.321
ZORPETZEA 2017.12.31n	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	27.636	28.346	ONDARE GARBIA	29.061	29.309
Ibilgetu ukiezina.....A.9	46	45	Ondarea	6.745	6.745
Ibilgetu materiala.....A.9	19.226	19.868	Aurreko ekitaldietako ondorioak..... A.9	21.818	22.357
Ibilgetuko inbertsioak.....A.9	232	241	Ekitaldiaren emaitza..... A.9	(264)	207
Lurraren ondare publikoa.....A.9	8.132	8.132	Jasotako diru-lag., emaitz. egotzi gabe A.9	762	-
Taldeko enpres. finantza inbertsioa e/luz.	-	60			
AKTIBO ARRUNTA	1.911	1.652	PASIBO ARRUNTA	486	689
Kudeaketa eragiketengatiko zordunak	407	416	Hartzek. eta e/lab. ordain. bste. knt. btzduk.....	453	654
Taldeko enpres. finantza inbertsioa e/lab.	60	60	Administrazio publikoak.....	33	35
Kobratzeko beste kontu batzuk	11	5			
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	1.433	1.171			
AKTIBOA, GUZTIRA	29.547	29.998	PASIBOA GUZTIRA	29.547	29.998

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 Euroak milakotan

	2017
Zergak	1.498
Tasak	109
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	1.500
Kapitaleko diru-laguntzak emaitzetara egozteak.....	23
Salmentak eta zerbitzuen emakida.....	66
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	77
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	3.273
Langileria-gastuak.....	(706)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(496)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(1.441)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(845)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(3.488)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(215)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(215)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(49)
EKITALDIAREN EMAITZA	(264)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Iruña Okako Udala toki erakundea da, oinarrizko alderdietan 57/2003 Legeak eta 27/2013 Legeak aldarazitako TAOALek eta 2/2016 Legeak arautua.

Aurreko arategiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, hiri garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur eta kirol jarduerak.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzako kudeaketa 3/2004 FAk eta 56/2015 FDK arautzen dute.

A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2017ko Aurrekontua hasiera batean 2016ko abenduaren 22ko Udalbatzak onartu zuen eta 2017ko urtarrilaren 9an eman zen argitara ALHAOn. Behin betiko onartutako aurrekontua 2017ko otsailaren 10eko ALHAOn eman zen argitara.

Ondoren, 2017ko aurrekontu aldaketak kapituluka xehatuko ditugu:

KAPITULUAK	Kreditu txertak.	Kreditu Osagarria	Kreditu gehikun.	Transferentziak		GUZT.
				+	-	
4. Transferentzia arruntak	-	-	6	-	-	6
7. Kapital transferentziak.....	-	-	25	-	-	25
8. Finantza-aktiboen bariazioa.....	299	98	-	-	-	397
SARRERAK GUZTIRA	299	98	31	-	-	428
1. Langileria-gastuak	-	-	-	2	-	2
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	17	46	-	12	(4)	71
4. Transferentzia arruntak	-	-	-	32	(17)	15
6. Inbertsio errealak.....	282	52	31	-	(25)	340
GASTUAK GUZTIRA	299	98	31	46	(46)	428

Aldaketek gastuen hasierako aurrekontua % 12 gehitu zuten eta 6 espediente izapidetu ziren. Sarreraren aurreikuspenak bete egin ziren eta gastuen aurrekontuaren % 72 egikaritu zen.

Udalaren Aurrekontuaren likidazioa 2018ko otsailaren 28ko alkatetzaren dekretu bidez onartu zen. Udalbatzaren lehendakariak aurkeztutako Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen eta jendaurrean agertu ostean, batere erreklamaziorik jaso ez zuela, Udalbatzak 2018ko otsailean onartu zuen.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako eta tasek eragindako sarreraren eta bestelako sarreraren xehapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Diru-sarr.
Hiriko ondasun higiezin gaineko zerga	931
Landako ondasun higiezin gaineko zerga	18
Trakzio mekanikodun lbilgailuen gaineko zerga	205
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	130
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga	132
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	1.416
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.....	82
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	82
Establezimenduak irekitzeko lizentziak	8
Hirigintzako lizentziak	11
Udalaren kultura eta kirol jarduerak	63
Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa.....	8
Enpresa hornitzaileek lurzoru, zorupe eta lur-gainaren erabilera pribatua	82
Operatzaile telefonikoen konpentsazioa.....	16
Zehapenak isurketa, lizentziarik gabeko jarduerak egin eta bestelakoengatik	16
Gainkarguak eta berandutze interesak	6
Gastuen itzulketa aseguratzaileak eta udal kiroldegiaren emakidadunak	18
Udal aldizkarian publizitatea eta beste txikiago batzuk.....	10
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	238
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.736

1992an Udalbatzak hiri hondakinak biltzeko udal zerbitzua modu mankomunatuan ematea erabaki zuen; zerbitzu hau Añanako kuadrillak kudeatzen du eta baita dagokion tasa bildu ere.

Udalaren kontuek ez dute udal kiroldegia erabiltzeagatiko prezio publikoa barne hartzen, 280.898 euro 2017an, izan ere, zerbitzu hau kudeatzen duen enpresak sarrera horiek ematen dituen zerbitzuak ordaintzeko baliatzen ditu, prestazioak arautzen dituen kontratuan aurreikusitakoaren arabera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2017an transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoek eragindako sarrerak:

ERAKUNDEA ETA KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEKOAK
Arabako Foru Aldundia		
Zerga itunduak (FOFEL): Konturako ordainketak 2017	1.228	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: Eguneko zentroa	52	-
Gazteriaren Foru Erakundea: Gazteentzako jarduerak	4	-
Merkataritzaren indarberritzea	12	-
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (2016ko likidazioa eta 2017ko aurrerakina)	31	-
Udal pilotalekua egokitzeko lanak	-	23
Kirol-jarduerak, gazteentzakoak, kulturakoak, euskara, hiri ekipamendua	15	4
EAE		
Osakidetzak: Osasun zentroa	88	-
Ihobe: Iktiologia Zentroaren Gidaplana	-	27
Teknologia berriak liburutegi, artxiboaren digitalizatzeko eta bake-epaitegian	10	-
Estatua		
Itundu gabeko zergak	1	-
Gizarte Segurantzak	5	-
Beste udal batzuk		
7 udal Herri-ikastetxearen gastuetarako ekarpenak	45	-
Kuartangoko Udala: Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta eguneko zentroa (2016)	6	-
Vitoria-Gasteizko Udala: Subillabideko argiteria publikoa, 2017ko 1. seihiakoa	4	-
Enpresak		
Michelin Fundazioa: Parke botanikoko ibilgailua	5	-
UDALA GUZTIRA	1.506	54

Itunpeko zergetan parte hartzeagatik sarrerak (FOFEL) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantzei dagozkie, hurrengo urtean kitatutakoak 15.123 euroren emaitza positiboarekin, zeina Udalak 2018an erregistratu zuen.

Arabako toki erakundeen 2008, 2009 eta 2011ko FOFELen likidazio negatiboak geroratu egin zituen AFAk eta dedukzioak egin zituen (urteko kitapen positiboak eta % 2ko dedukzioa udalen funts osagarritik, nagusiki), 2017ra arte AFAk banakatu ez zituenak, harik eta 2016ko FOFELen likidazioa egin zuen arte. Azken honetan adierazi zen toki entitateen zorra kitatu zela, Gasteizkoarena izan ezik, zeinak 2016ko abenduaren 31n 32,3 milioi euroren zorra zuen, Udalaren likidazio positiboekin eta 2021. urtera arteko Arabako 51 udalen funts osagarriko kenkariekin kitatu asmo duena; 3 milioi euro egin ditu 2017an deduzitutako zenbatekoak.

2017an osasun zentroko gastuetarako sortutako diru-laguntza, aitortutako diru-sarrera baino 43.966 euro txikiagoa izan zen; alabaina, sortutako diru-sarrerak aitortutakoak baino

81.945 euro handiagoak dira, gizarte zerbitzuen kontzeptuko foru diru-laguntzetan eta beste udal batzuetako transferentzietan.

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Ondotik Udalaren langile-gastuak xehatu dira:

KONTZEPTUA	Gastua 2017	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 17.12.31
Goi kargudunak-alkatea	51	-	1
Funtzionarioak	437	12	12(*)
Aldi baterako langileak	25	-	1
Ordainsariak guztira	513	12	14
Gizarte Segurantzza	124		
Elkarkidetza-Borond. Gizarte Aurreik. Erakundearen kuotak.....	13		
Prestakuntza	2		
UDALA GUZTIRA	652		

(*) Bitarteko bi funtzionariok lanpostu hutsak betetzen dituzte.

Langileen ordainsariak % 1 egin zuten gora, 2016an indarrean zeudenekin alderatuta.

Udalak 2008an Udalhitzera atxikitzea onartu zuen, erretiro aurreratuagatik ordainsari osagarrien ordainketa aurreikusten duen akordio arautzailea; ez da, baina, 2017an kontzeptu honengatik Udalean sortzapekin egin.

Aurreko taulako Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ekitaldian sortutakoak dira. Udalak ezintasun iragankorragatik zerbitzuak langileen gastuen kontu-sailen kontura ordaintzen ditu eta Gizarte Segurantzari eragindakoen kontzeptuko sarrerak erregistratu zituen, 4.732 euro.

Altak

2017ko ekitaldian Udalak ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Bitarteko funtzionarioa	2
Ordezkapena	1
Programa egikaritzea (urteko luzapena)	1
GUZTIRA	2

A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Udalaren gastuen 2. kapituluaren xehapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Eraikuntzak eta instalazioak konpondu eta zaintzea	127
Bulegoko material suntsigarria	33
Argindarraren hornidura	162
Ur, erregai eta bestelako hornidura	142
Komunikazioak	43
Erantzukizun zibil, eraikin eta ibilgailuen aseguruak	28
Tributuak (udal ondarearen OHZ)	30
Hainbat gastu	185
Kultura jarduerak	107
Udal aldizkaria	27
Haur eta gazte animazioa udalekuak	24
Beste txikiago batzuk (publikotasuna, ordezkartza gastuak eta beste)	27
Enpresek egindako lanak	686
Udal eraikinen garbiketa	165
Musika ikastaroak, hizkuntzak eta beste	146
Eguneko zentroa	72
Hirigintzako udal aholkularia	52
Udal autobusa	49
Lorategi botanikoaren kudeaketa	48
Haur eta gazte animazioa	39
Prentsa zerbitzua eta merkataritza berrindartzeko proiektua	33
Aholkularitza juridikoa	14
Bestelako txikiago batzuk	68
Zinegotzien bertaratzearagatik egunsariak	54
Langileen lokomozio-gastuak	1
GUZTIRA	1.491

Inbertsioak

Hona hemen 2017ko inbertsioen xehapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Udal pilotalekuan segurtasuneko hobekuntzak	51
Autokarabanen aparkalekua	29
Lorategi Botanikoko lanak	33
Udal eraikinetan inbertsioak eta altzariak	24
Bestelako txikiago batzuk	63
GUZTIRA	200



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Ondotik transferentzia eta diru-laguntza korrante eta kapitalekoak jaso ditugu:

	Euroak milakotan
Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	290
Lorategi eta berdeguneetako garbiketa eta zaintzarako Partzuergoa: zerbitzuaren finantzaketa.....	166
5 Kontzeju: argiteria publikoa	79
5 Kontzeju: Jaiak.....	2
Añanako Kuadrilla: Artxibo zerbitzua	13
Añanako Kuadrilla: animazio soziokulturala	1
Añanako Kuadrilla: enplegu programa 2016-17 eta Giz. Segur. ikuskaritza 2015 eta 2016	28
Erriberabeitiko Udala (ikastetxeko gastuak) eta Gizarte Ongizateko Foru Institutua (taxi bonua)	1
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	28
Nandares Kirol Cluba: urteko jarduera eta pilotalekuaren kudeaketa	11
Urratsak Kultura elkarte Umeekin jarduerak	6
Lorategi Botanikoko Lagunen Elkarte: sustapen turistikoa.....	4
Askegi Kultur-elkarte: aldizkaria	4
Lantarte Emakumeen Elkarte: euskal dantzak	3
DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK (4 kirol jarduera)	4
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	19
8 elkarte: kultura jarduerak	8
Gurasoen 2 elkarte: eskolaz kanpoko jarduerak	7
3 kirol elkarte eta euskarako 5 ikasle.....	4
BESTE BATZUK	110
Udal kiroldegia kudeatzeko kontratua (ikus A.10)	107
EUDEL eta FEM udal elkarten ekarpenak	3
4. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA	451
5 Kontzeju: Obra txikiagoak.....	45
7. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA	45

Partzuergoak

Udalak eta 5 kontzejuk 2001 eta 2002an Lorategi eta berdeguneetako garbiketa eta zaintzarako Partzuergoa eta Iruña Okako Uren Partzuergoa eratu zituzten. Lehenengoan AFA ere partaide da, zeinak zenbait instalazio ekarri baitzituen eta, nagusiki, kontzejuek egindako ekarpen bidez finantzatzen da, kontzeju horiei hornitutako ura oinarri hartuta kalkulatu direnak. Bigarren partzuergoak partaide dituen 6 toki-entitateri ematen die zerbitzu eta ekarpen bidez finantzatzen da, zeinetan Udalak egindako ekarpenak % 81,4 osatu duten. 2 entitateen 2017ko sarrera eta gastuen auditatu gabeko egoerak honako hauek dira:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Garbiketa eta Loretokiak	Ura (**)
Udalaren ekarpena	159(*)	-
5 kontzejuen ekarpena (aurreko urteetako 12.130 hartzen ditu).....	47(*)	279
Bestelako sarrerak	-	15
Kapitaleko diru-laguntzak.....	-	35
Sarrerak guztira	206	329
Langileria-gastuak	163	98
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak	34	162
Inbertsioak	5	69
Gastuak guztira	202	329
Geldikina 17.12.31	(4)	27

(*) Udalaren ekarpenetan ez dira ordaintzeko dauden 6.365 euro barne hartu. Kontzejuen ekarpenetan 2016ko urteari dagozkion 12.130 euro barne hartu dira.

(**) 2017ko aurrekontua eta 16.12.31ko geldikina. 2017ko likidazioa egiteke dago txosten hau idatzi dugun datan.

2013an erabaki zen Partzuergoak partaide zituen administrazioetakoren bati atxiki behar zitzaizkiola eta haren kontuak administrazio horren Kontu Orokorra txertatu; horretarako, Partzuergoak Estatutuak aldatu beharko zituen. Uren Partzuergoak 2017ko abenduan onartu zituen Estatutu berriak eta Lorategi eta berdeguneetako garbiketa eta zaintzarako Partzuergoaren Estatutuak, berriz, Udaltzak 2018ko urtarrilean onartu zituen, txosten hau idatzi den datan izapidea erabat osatu ez dela. Bietan ere, Udalari atxikitzea erabaki da.

Kontzejuak

11/1995 Foru Arauak udalaz azpiko lurralde-eremuko toki entitate modura definitzen ditu kontzejuak, haien ondarea kudeatzeko (landa bideak eta erabilera publikoko mendiak, nagusiki) eta tradizionalki kudeatu dituen zerbitzuak ematen jarraitzeko eskumena dutenak. Azken zerbitzu hauek direla-eta, FOFELen oinarritzko osagaia banatzean (funtsaren % 27), AFAk 10 udal zerbitzuren egoera hartzen du aintzat. 2017ko oinarritzko osagai hori banatzean Udalari 57.152 euro eman zitzaizkion (eskolen eta osasun zentroaren mantentze-lana) eta 5 kontzejuei 464.490 euro, uraren hornidura eta saneamendu, herriko argi, hilerri eta gizarte zentroetako zerbitzuak emateagatik. Herriko argiteria zerbitzuak Udalaren laguntzak ere jaso zituen, 5 kontzejuen 2017ko kontu auditatu gabeen laburpenean xehatua dagoen moduan:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

Kontzejua	AFA	Udala	B. batzuk	B. batzuk	2017ko ordaink.		17.12.1	
	FOFEL	argiteria	Diru-lag.	Kobrant.	Arrunta	Kapital.	Diruzaintza	Zorra
Nanclares.....	335	36	76	299	540(**)	566	681	-
Billoda	47	19	23	87	85	126	109	-
Tresponde	41	6	77	119	159	163	195	-
Olabarri	31	7	55	44	57	112	8	65
Mandaia.....	10	3	3	24	18	13	109	-
GUZTIRA	464	71(*)	234	573	859	980	1.102	65

(*) Udalaren saldoarekiko aldea, ordaintzeko saldoengatik. Udalaren 45.000 euroren kapitaleko diru-laguntzak ez dira barne-hartzen, 17.12.31n ordaintzeko gelditu direlako.

(**) Plantillan langileak dituen kontzeju bakarra.

27/2013 Legeak 2013an ziren kontzejuei eustea aurreikusten du, baina desegino balira, bertako langileak eta dituzten eskubide eta obligazioak kontzeju horiek jasotzen dituzten udalei eskualdatuko zaizkie.

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Ondotik, 2017ko abenduaren 31n tributu bakoitzeko aurrekontuko zordunak zehazten dira; baita, aurreko urteetako mugimendua ere:

Euroak milakotan

KAPITULUAK	Aurrekontu itxiak				2017ko Aurrek.	
	17.1.1	Kobran.	Baliog.	17.12.31	17.12.31	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	236	72	10	154	88	242
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga	68	18	-	50	15	65
Lursailen Balioaren Igoeraren gaineko Zerga.....	63	18	11	34	55	89
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	8	2	-	6	107	113
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	24	11	-	13	2	15
Hirigintzako lizentzien tasak.....	3	1	-	2	1	3
Hornidura enpresak: Jabari publikoa okupatzea.....	27	27	-	-	33	33
Zehapenak	10	-	-	10	15	25
Vitoria SA Udal Urak: hodi apurketa 2006.....	112	-	-	112	-	112
Bestelako txikiago batzuk.....	24	2	-	22	3	25
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	575	151	21	403	319	722
Transferentziak eta diru-laguntzak 4 eta 7 kap.	294	277	-	17	132	149
Billodan urbanizazio kuotak 2010 sustapena.....	121	-	-	121	-	121
Ondare sarrerak eta beste txikiago batzuk.....	22	22	-	-	7	7
GUZTIRA	1.012	450	21	541	458	999

Udalak 591.4131 euroan balioetsi du 2017ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu bi urtetik gorako antzintasuna duten saldoen % 100 eta % 50 eta % 20ko ehunekoak gainerako saldoetan.

2017ko abenduaren 31n kobratzeko dagoen saldo nagusia 120.4000 euro da, Billodan egindako sustapen baten 2010eko urbanizazio-kuotei dagokiena, zati batean ordaingabe utzi

zituztenak. Kobrantza bermatua zegoen birpartzelatzean atxikitako lursailak kuota horien ordainketari lotzearekin; ordea, bermea ez da egikaritu, nahiz likidazioak premiatuak izan diren eta 5 finkaren gainean enbargoaren idatzoharra gauzatu den. Hala eta guztiz ere, saldoa duen antzinatasunagatik zuzkitu da eta ez epe laburrera kobrantzarik aurreikusten delako.

A.9 AKTIBO EZ-ARRUNTA ETA ONDARE GARBIA

Ondotik Udalaren balantzeko aktibo ez korronteen osaera eta mugimenduak zehaztuko dira:

KONTUA	Euroak milakotan				
	Saldoa 16.12.31	Inbertsioa 2017 Eskualdaketak	Erregular. eta Amortiz.	Saldoa 17.12.31	
Ibilgetu ez-materiala	45	16	-	(4)	57
Ibilgetu materiala	26.522	184	-	(1)	26.705
Lursailak	2.838	29	(29)	-	2.838
Eraikuntzak.....	12.911	36	54	-	13.001
Azpiegiturak	9.370	42	(4)	-	9.408
Bestelako ibilgetu materiala	1.403	77	(21)	(1)	1.458
Eraikuntzetan inbertsioak (37 garaje)	281	-	-	-	281
Lurraren ondare publikoa (49 lursail).....	8.132	-	-	-	8.132
Iruña de Oca Sociedad Urbanística, SAren finan. inberts....	60	-	-	(60) (*)	-
ZOR SALDOEN GUZTIZKO PARTZIALA	35.040	200	-	(65)	35.175
Amortiz. metatua Ibilgetu ez-materiala	-	-	-	(11)	(11)
Ibilgetu material eta inbertsioen pilatut. amortizazioa	(6.694)	-	-	(834)	(7.528)
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	28.346	200	-	(910)	27.636

(*) Ekonomia-ondarearen Emaizaren Kontuko Finantza Eragiketen Emaizetan barne hartua.

Lurraren Udal Ondarearen kontuan 49 lursail eraikigarri daude, Udalak eskuratutakoak Subillalde eta Los Llanoseko industria poligonoen hirigintzako garapenean eta etxebizitzan zenbait sustapenetan sortutako gainbalioetan udalak duen partaidetza kontzeptuan.

Finantza inbertsioen saldoa 2016an desegin eta kitatu zen Iruña de Oca Sociedad Urbanística, SAren akzioekin (% 100), 44.400 euroren eskudiruko saldoa gelditzen zelarik, 2018an Udalari ordaindutakoa. Aurreko saldoaz gain, honekin baterako Balantzearen aktibo arruntean 60.101 euroren kobratzeko saldoa barne hartzen da, 2018an kobratutako 44.400 euroekin murriztu behar litzatekeena, eta aurrekontu itxietan 45.000 euroren saldo hartzekodun bat, zuzendu beharrekoa.

Udalak 2010ean adostu zuen Araba Garapen Agentzia, SArekin Los Llanos poligonoko 2. sektorearen garapenean Udalaren hirigintzako aprobetxamenduak monetarizatzea, horren zenbatekoa 509.340 euroan finkatuz. Ordainketa geroratua egitea erabaki zen, foru sozietateari esleitu zitzaizkion udal azpiegiturretan egin beharreko lanei aplikatu zitzaizkion; lan horiek, baina, gauzatzeko zeuden 2017ko abenduaren 31n. 2012an izenpetutako beste hitzarmen batzuen bitartez, hiri-plangintzaren gaineko aldaketa bultzatzea erabaki zen, 4 lursailen eraikigarritasuna ondoko poligonokoekin berdintzearen; aldaketa 2013an onartu zen. Udalaren aldeko diru-zenbatekoak zehaztu ziren, hirigintza aprobetxamendu eta



eraikigarritasunaren lagapen kontzeptukoak eta ordainketa geroratu zen harik eta obrak hasi ziren arte edo lursaila eskuz aldatu zen arte. 2017ko abenduaren 31n kobratzeko gelditzen ziren 139.923 euro, 3 lursaili zegozkienak. Udalak ez du espero kobratzeko saldo hauek epe laburrean kobratzea, guztira 649.263 euroren zenbatekoa egiten dutenak.

2014ko otsaileko Udalbatzan udalerrian kokatutako enpresa batekin hitzarmena sinatzea onartu zen, hiri-plangintzaren aldaketa sustatzeko: haren jabetzako lursailei beste 40.800 metro²-ren eraikigarritasun gehigarria ematen zitzaien eta behin aldaketa gauzatua zela, Udalari 19,8 hektareako lursaila eman beharko zion, 1 milioiko baliokoa, tiroketa eta ehizarekin loturiko ekipamendu ludiko bat egiteko. 2017ko abenduaren 31n ez da aldaketa gauzatu hirigintzako araudian.

2017ko apirileko Udalbatzan onartu zen AFari Los Llanos poligonoko lursail bat lagatzea - 414.722 euroan balioztatua- suhiltzaileen etxe bat eraikitzeko; ez da, baina, urte hartako abenduan gauzatu zen lagapena erregistratu.

Ondare garbia

2015ean udalaren kontularitzako araudia aldatu zen eta finkatu zen 2016tik aurrera kapitaleko diru-laguntzak Ondarean erregistratu beharko zirela, diru-laguntza bidez finantzatutako inbertsioen amortizazioaren pareko urteko sarrerak egotziz. Udalak 2017ko kapitaleko diru-laguntzak irizpide berriaren arabera erregistratu ditu eta 2016koak erregularizatu ditu, ondotik adierazten den moduan:

Deskribapena	Euroak milakotan		
	Emaitzak		Kapitaleko diru-lag.
	Aurr. ekit.	Uneko ekit.	
Saldoa 16.12.31n	22.357	207	-
2016ko kapital diru-laguntzen alta	(725)	-	725
2017ko kapital diru-laguntzen alta	-	-	60
Kapital diru-laguntzak 2017ko emaitzetara egoztea.....	-	-	(23)
Aurrekontu itxietako zordunen saldoa baliogabetzea.....	(21)	-	-
2016ko Emaitzak, aurreko urteetako emaitzara	207	(207)	-
2017ko emaitza.....	-	(264)	-
SALDOA 17.12.31-N	21.818	(264)	762



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUA	Data	Esleipena		Gastua 2017	Euroak milakotan	
		Prozed.	Zenbat. (*)		Hutsak A	B
KUDEAKETA KONTRATUA						
1. Udal kiroldegiaren kudeaketa (10 urte)	mai-10	Irekia	1.000	107		B
ZERBITZU-KONTRATUAK						
2. Haur eta gazteen aisialdi zerbitzua (bi urte)	mai-16	Irekia	126(**)	63	A1	B
3. Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua (urtebete)	eka-16	Irekia	165	165	A1	B
Luzapena	eka-17					
4. Eguneko zentroko zerbitzua (2 urte)	eka-16	Irekia	143(**)	71	A1	
GUZTIRA			1.434	406		

(*) Esleitutako zenbatekoak BEZa barne

(**) Aleko prezioak Balioetsitako esleipen-zenbatekoa, 2016ko egiazko egikaritza datuekin

HUTSAK	Esped. kopurua	Esleip.. zenbat.
A ESLEIPENA ETA EGIKARITZA		
1. Esleipenaren publikotasuna: Ez da ALHAOn argitaratzen. Jakinarazpena ez da argudiatu	3	434
B ESPEDIENTEAREN BERARIAZKO ALDERDIAK		

